

BERMEO / Ixabel Milletek zelan idatzi irakatsiko du zapaturo liburutegian

Idazten ikasteko lantegian izena emateko barikura arte dago epea

Ekaitz Goienetxea

Zapatu honetan hasi eta martxoaren 31ra arte, zapaturo, idazten irakatsiko du Ixabel Millet ipuin kontalariak (Paris, 1958). Bi ordu eta erdiko klaseak izango dira, 10:30etik 13:00era.

Edozein adineko jendeari zuzenduta dago lantegia, baina, parte hartu ahal izango duten ikasle kopurua mugatua da: hamalau pertsona bakarrik. Izena emateko epea bariku honetan bukatuko da. Interesa duena bi lekutara joan daiteke: Udal liburutegira goiz eta arratsaldez, edota GIZ-en bulegora arratsaldeetan. Doakoa da izen ematea.

Seigarren aldia da horrelako ikastaro bat antolatzen dutena Bermeoko GIZek, liburutegiak eta Euskara sailak. 2002tik, urtero, idazle hauek izan dira irakasle: Edorta Jimenez, Aritz Gorrotxategi, Julen Gabiria, Pako Aristi eta Yolanda Arrieta.

Tailer iraunkorra

Helburuak hainbat direla esan dute Euskara sailekoek, baina, horien artean, bi: batetik, literaturzaletasuna bultzatzea eta, bestetik, urte osorako tailer iraunkor bat sortzea; oraindino ez dugu lortu.

Ixabel Millet Parisen jaio bazen ere, 23 urte gaz Euskal Herrira etorri eta euskara ikasi zuen. Hizkuntza irakaskuntzan aritu izan da lanean, eta bere metodoak sortu ditu teknika sortzaileetan oinarrituta: olerkigintzarako, ipuingintzarako edota antzerkirako. Bi liburu argitaratu ditu: Kanturik Gabeko Herria eta Jainko-Jainkotsek ez dakite dena. Itzulpengintzan ere aritu da.